

# Emari ekologikoaren erreserba gure ibaien inguruaren gutxieneko berme gisa<sup>1</sup>

(The reservation on ecological wealth as a minimal environmental guarantee of our rivers)

EZEIZABARRENA SÁENZ, Xabier

Abokatua

Doktorego ikaslea (Konstituzio eta Administrazio Zuzenbide Saila, EHU)

Ingurugiroari Buruzko Arbitraje eta Kontziliaziorako Nazioarteko Gorteko bekaduna

Euskal Herria, 12, 2.A

20003 Donostia

xabiezeizabarrena@hotmail.com

BIBLID [1137-1951 (2000), 6; 59-65

**E**mari ekologikoaren erreserbaren aurrekari historikoa ibaietako arrantzari buruzko legedian aurkitzen da; halere, erreserbak egun daukan helburuak apenas dauka arrantzarekin zerikusirik. Aitzitik, beste ekosistema ugariaren oinarria den ibaietakoak biziraun dezala bermatu nahi da emariaren erreserbaren bitartez.

**E**l precedente histórico de la reserva de caudal ecológico se sitúa sin dificultad en la legislación de pesca fluvial, aunque ha de subrayarse que el objetivo actual de la reserva tiene muy poco que ver con el aprovechamiento piscícola, tratándose hoy día de garantizar la supervivencia del ecosistema fluvial, como pilar esencial de otros muchos ecosistemas.

**L**e précédent historique de la réserve de débit écologique se situe sans difficulté dans la législation de pêche fluviale, bien qu'il faille souligner que l'objectif actuel de la réserve a peu de chose à voir avec l'exploitation piscicole, s'agissant aujourd'hui de garantir la survie de l'écosystème fluvial, comme pilier essentiel de beaucoup d'autres écosystèmes.

1. Egileak Marga Asumendiri itzulpenetako lanak bukatzeko bere laguntza nagusia eskertu nahi dio.

---

1. **Sarrera.** 2. **Aginpidearen alderdiak.** 3. **Kontzeptuzko hurbilketa.** 4. **Emari ekologikoren arazo praktikoko batzuk:** 4.1. Determinazioari buruz. 4.2. Uraren Legearen 63.3 atalaren kalte-ordainen aurreikuspenari buruz. 5. **Ondorioak.** 6. **Ohar bibliografikoa.**

---

## 1. Sarrera

Uraren Zuzenbidea, jurista asko arduratzen duen ingurugiroaren problematikaren garrantzi handiko diziplina da. Baliabide honen urritasunak, eta horrekin batera oinarritzko edozein jarduera burutzeko (etxeokak zein industriarenak) uraren ezinbesteko premiak, gure ibaien erabilera arautzeaz arduratzen den administrazioaren edozein erakunderen betebeharreko eginkizun bihurtzen dute uraren zainketa eta babes egokia.

Alabaina, ingurugiroaren gainerako problematikarekin gertatzen den bezala, arazo hau ez da inondik ere berria, Platonek berak bere garaian gaur egun gure Kode Zibilean edo Uraren Legean ezinbesteko gai konplexu hau arautzen duten printzipio eta helburu batzuk aurreratu baitzizkigun. Platonen ustez, baliabide berdingabe eta urri honen berezitasun nagusia kanpotik bere izaera eraldatzeko erraztasunean datza, oro har gai solidoak, itxuraz edo teoriarik behintzat, aldaezinak diren bitartean.

Arrazoibide simple honek ibaiko urak babesteko premia dakar, bai eta beren ubide eta ibaien inguruko ekosistemak ere, guztia osotasun homogeen bat bailitzan aurkezten bazaigu ere, aldi berean heterogeen eta anitza baita bere barne elkarrekintza eta problematikan.

Uraren Zuzenbidearen azterketan dauden joera berrien artean, Zuzenbide Publikoaren beste askorekin gertatzen den bezala, bi joera nagusi hauen artean aukeratu beharra dago: batetik joera neoliberal dago, eta honek ura bezalako gai bereziaren salerosketa merkatuaren esku uztea defendatzen du, eta bestetik Konstituzioko 45. atalaren ingurugiroaren postulatuei heltzeko ezinbesteko tresna den plangintza hidrológicoaren aldekoak daude, azken hauek diotenez, bestela, ura lortzeari dagokionez, arau honek babestutako eskubidea babesik eta bermerik gabe geratuko bailitzateke merkatu zabalaren eskuetan.

Era berean, lerro hauetan 1985eko Uraren Legeak 1.2 atalean<sup>2</sup> zehazki azpimarratzen duena hitzez hitz gogoratzea komeni da, hots “*las aguas*

*continentales superficiales, así como las subterráneas renovables, integradas todas ellas en el ciclo hidrológico, constituyen un recurso unitario, subordinado al interés general, que forma parte del dominio público estatal como dominio público hidráulico”.*

Gaur egungo sistema juridikoak gero eta zabalagoak dira Estatuaren arteko muga ezberdinak erabat gainditzen. Baina, edozein kasutan, Zuzenbideak ingurugiroaren mugak ezagutu behar ditu, bere benetako zentzua nagusi dadin. Puntu horretara iristeko, uraren gaiean lehen-lehenik aipatzekoa da Konstituzioko 45. atala nolako eraginkortasuna hartzen ari den. Artikulu horren testutik eraginkortasun bertikala nagusitzen da uraren inguruko gai ezberdinen gainean, Administrazioaren kasuan berezitasunak dauzkalarik.

Zoritxarrez, Auzitegien orain arteko iritzirik ez dira oso zuzenak, baizik eta kriptikoak eta juridikoki konplexuegiak. Zentzu honetan, badirudi Auzitegiek eta ia legebiltzar guztiek pentsatzen dutela Konstituzioko 45. atalak ez daukala uraren gure arazoei behin betiko erantzun juridiko bat emateko nahiko eraginkortasun. Ingurugiroko beste gai guztietan bezala, uraren borroka ez da legezko zentzua hartzen ari, baizik eta politikoa.

Bitartean, ingurugiroko eskubideen defendatzaileek onartu behar dute beren asmo eta lan guztiek Zuzenbidearen laguntza nagusia behar dutela, Uraren Legea eta Konstituzioko esaldiak denon artean errealitate bihurtzeko. Konstituzioko eraginkortasun zuzen eta nagusia onartuz gero, agian Administrazio batzuk urduri samar jarriko liriteke, beraien erantzukizuna hutsik aurkeztuko bailitzateke gure aurrean. Behin Konstituzioko esaldien indarra bukatzean, eta horregatik ez dira eskubideak hain garbi ateratzen, Administrazioak onartu behar du ingurugiroaren eta uraren oraingo egoerak ezin duela bide bakar batetik hain estu jarraitu.

Gainerako instituzio juridikoetan bezala, pentsatu behar da eskubide guztien beste aldean obligazioak daudela. Ingurugiroaren eta uraren gaitan, Konstituzioko atalen eraginkortasun zuzenak esan behar izango du pertsona batek bere eskubideak eskatu ahal izango dituela epaile baten aurrean, beste partikularren edo Administrazioaren obligazioak eskatzen, eta honek, nolana ere, kasu askotan segurtasun juridikoa bilatzen du eta ingurugiroko eskubideak azpimarratzen ditu, nire ikuspuntutik.

Ingurugiroko gure arazo juridikoen artean, interpretazioko gaiak dira benetan nagusi.

---

2. Uraren 29/1985 Legearen atal batzuk aldatu egin dira 46/1999 Legearen bidez (BOE, 298 zkia., 1999-12-14).

EZEIZABARRENA SÁENZ, Xabier. Emari ekologikoren erreserba gure ibaien inguruaren gutxieneko berme gisa. *Eleria*. 6, 2000, 59-65

## “ Ingurugiroko beste gai guztietan bezala, uraren borroka ez da legezko zentzua hartzen ari, baizik eta politikoa ”

Kontuan hartu behar da Auzitegien arazorik nagusia gure gaiaren aurrean doktrina erabat zuzen eta garbi bat aurkitzea dela. Alde horretatik, Espainiako epaileek beraien Estatuko Zuzenbidea aplikatzen dute, eta baita beren erkidegokoa ere, Europako Zuzenbidea eta nazioartekoa ere badagoenean.

Jakina, askotan ezinezkoa izango da lege hauekin guztiekin interpretazio zuzen eta garbi bat aurkitzea Europar Batasuneko uraren arazoei erantzun juridikoa emateko. Prozesu zail honetan, Zuzenbide Komunitarioa Estatuaren Zuzenbidean sartzen ari da, eta barruko Zuzenbide bihurtzen da lehenengo momentuetatik, barruko Konstituzio bat bezala. Europako urak betiko lege baten pean egotea nahi baldin badugu, Europar Komunitateetako Justizia Auzitegiaren paper nagusiarekin jolastu beharko da, Europako Uraren Direktibarekin batera eta Estatu kideen laguntzarekin adostasun puntu erdi batera iristeko.

Baina ez da hori nire gaurko gaia; Espainiako esparru juridikoan emari ekologikoaren erreserba eta bere arazo nagusi ezberdinak dira oraingoan azaldu nahi ditudanak, Konstituzioko 45. ataleko esaldiek ongi eta zuzenean babes dezaten uraren gai zail hau.

Emari ekologikoaren erreserba, babes eta zainketaren helburuak burutzeko ezinbesteko tresna gisa agertzen da, eta ondorengo lerroetan bere nortasun eta izaera juridikoa azaltzen ahaleginduko naiz.

## 2. Aginpidearen alderdiak

1985eko Uraren Legea onartuta, autonomia erkidego batzuek Konstituzioaren aginpidearen

titulu batzuk erabili dituzte emari ekologikoen zehaztapena dela-eta aginpidearen erreserba batzuk burutu ahal izateko. Helburu horrekin, ingurugiroaren babesari buruzko arau gehigarriaren titulua (Konstituzioaren 149.1.23. atala) eta ibaiko arrantzarena (Konstituzioaren 148.1.11 atala) izan dira maizen aipatu direnak.

Aurrerago ikusiko denez, emari ekologikoaren erreserba ez da hainbat ibaietako ubideetan arrainen ustiapenerako erabilitako emariarekin nahastu behar, ez eta ubide jakin bateko emariari lotutako edozein ustiaketarako erreserba zehatzekin ere. Nire adiskide eta maisu den LOPERENA ROTAK dioenez, aipatutako aginpidea kentzeko erabilitako tituluak bere muturreraino jarraituz gero ingurugiroari arrantza errotulua aplikatuko bagenio, ehiza errotulua inguru atmosferikoaren babesa arautzeko erabiltzera iritsiko ginatke, eta hori zentzugabekeria galanta da.

Bestalde, 1985eko Uraren Legea, aginpideei dagokionez, emari ekologikoen determinazioan aginpideen erabilera zatitua galarazten duen printzipioan oinarrituta dago: kudeaketaren batasunaren printzipioa.

Aitzitik, emari ekologikoen determinazio eraginkorra, ibaiaren goi-ibilguak zeharkatzen duen autonomia erkidegoaren bitarteko ahalmenen esku geratuko litzateke. Edonola ere, Uraren Legearen 40 d) atalak ingurugiroaren babeserako emarien erreserbaren zehaztapena Plangintza Hidrologikoen esku uzten du argi eta garbi.

Aginpideen beste hainbat gaitan bezala, oraingo honetan ere errekurtsuaren izaera dinamikoak administrazio eskudunen arteko lankidetzarako formulak eskatzen du; horrela, aginpideak alor honetan elkartzea ere maiz gertatzen da, baina zailtasun nagusia azken erabakia hartzean datza, batasunaren eta elkartasunaren formulek porrot egin dutenean. Honela gertatzen denean, erabaki bat hartu behar da, eta hori ez da erraza izango autonomia erkidego bakoitzak bere irizpide propioak jartzen baditu, eta horregatik logiko eta praktikoagoa izango da administrazio hidraulikoak hitza hartzea.

Horrelaxe dio, hain zuzen ere, Auzitegi Konstituzionalaren 1998-1-22ko Epaia<sup>3</sup> (aurrerantzean, AKE). Horrela bada, autonomia erkidegoek arroen erakundeek emari minimoa finkatzeko duten aginpide legitimoa errespetatu behar dute. Azken finean, nahitaezko betebeharrak

3. “La obligación de respetar un caudal mínimo necesario para garantizar la evolución natural de las especies susceptibles de ser pescadas, prevista en el art. 20 de la Ley no puede desvincularse de lo que en su disposición transitoria segunda se denomina «caudal mínimo ecológico». Un caudal que «en tanto los organismos competentes de las Cuencas Hidrográficas» no lo determinen, «se entenderá por tal el 10 por 100 del caudal medio anual”.

legala da eta bere aginpidezko titulu ezberdinetan eta aldi berean toki fisiko berean elkar daiteke, antzekoak diren beste betebeharrak batzuk osatuz. Arazo hau garbiago ikusten da 110/1998ko maiatzaren 21eko AKEan<sup>4</sup>.

Gai honi buruzko autonomien legeria berriena, lehen aipatutako irizpideei lotzen zaio, hots, arroen erakundearen aginpideak errespetatzeko joera du. Hauxe bera dio Asturiasko Ibaiko Arrantzaren 3/1998 Legeak, abenduaren 11koak<sup>5</sup>, bai eta Aragoiko Arrantzaren 2/1999 Legeak, otsailaren 24koak<sup>6</sup> ere. Kataluniari dagokionez, eta ingurugiroaren gaien lankidetzaren eta batasunaren formulak dagokienez, Autonomia Erkidego honek neurri batean berritzailea den legea promulgatu du. Ingurugiroaren Administrazioaren Parte-hartze Integralaren Legea da, otsailaren 27ko 3/1998ko lege katalana<sup>7</sup>. Lege honek, erabiltzen ari den eredu administratiboaren akats praktikoa zuzendu nahi ditu, horretarako ingurugiroaren eragina duten jardueren administrazioak sistema homogeneo batez parte hartzen duelarik, modu egokian fiskalizatzearren, eta horrela jasota dago gai honetan berritzailea den araudi katalanaren lehen arauan<sup>8</sup>.

Hau guztia, Legearen oinarri diren eta bere baitan Ingurugiroaren Europako Komunitatearen Zuzenbidearen edota Nazioarteko Zuzenbidearen oinarriko printzipio batzuk gordetzen dituen helburu edo xede batzuk aplikatuz burutu nahi da. Honelaxe dio 2. atalak, eta aipatzen dituen helburuen artean honako hauek azpimarratuko ditugu:

- a) Pertsonen eta ingurugiroaren babes maila altua lortzea, gerta daitezkeen

kalteak aurreikusiz, minimizatuz, zuzenduz eta kontrolatuz.

- b) Garapen jasangarria bultzatzea, hazkuntza ekonomikoa eta ingurugiroaren babesa uztartuz.

- c) Norbanakoak administrazioaren aurrean dituen zergak gutxitzea, eta aldi berean prozedura administratiboak arintzea.

Lege hau aplikatzen den esparruari dagokionez, 3.1 atalak hauxe dio: *ingurugiroan, segurtasunean eta pertsonen osasunean eragina izan dezaketen jarduerak guztiak, publiko nahiz pribatuak, bere menpe hartzen ditu Lege honek*. Bestalde, Katalunia eta Estatuaren arteko aginpideen banaketari dagokionez, oinarriko arautegia jasotzen du. Bertan, Estatuaren instituzioei dagozkien jarduerak administrazioaren autonomiak errespetua gordetzea eskatzen du, eta horrek badu garrantzia eskuartearen dugun gai honetan, eta horrela egiaztatu dugu gure jurisprudentziaren artean<sup>9</sup>.

Azkenik, Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko 3/1998 Lege Orokorraren baitan dagoen 25. a) atalak<sup>10</sup> uraren babeserako administrazioak, dagokion aginpideen esparruan, emari ekologikoak finkatzea oinarriko printzipio gisa aipatzen du. Beraz, xedapena, aginpideei dagokienez, ez da kaltegarria, indarrean dauden arauak lotzen baitaie, ezer gutxi argitu gabe.

### 3. Kontzeptuzko hurbilketa

Hemendik aurrera aztertuko dugun kontzeptua, emari ekologikoarena alegia, antzeko

4. *“Es indudable que dentro de la competencia estatal para la concesión de recursos y aprovechamientos hidráulicos (art. 149.1.22.ª CE) se encuentra la facultad de determinar tanto los caudales generales de la cuenca como aquellos que se fijan en los correspondientes títulos concesionales, atendiendo a los distintos usos privativos del agua. El principio de unidad de gestión de la cuenca y el tratamiento homogéneo del recurso (art. 13 de la Ley 29/1985, de 2 de agosto, de Aguas), cuya conformidad a la Constitución fue explícitamente declarado por la STC 227/88 (fundamento jurídico 15), exige que la especificación de los caudales mínimos y máximos circulantes corresponda, en las cuencas hidrográficas que excedan el ámbito territorial de una Comunidad Autónoma, a los Organismos de cuenca, entre cuyas funciones se encuentra la de administrar y controlar el dominio público hidráulico [art. 21.1, c) de la Ley de Aguas]. Se infiere de todo ello, que el régimen de caudales ecológicos ha de ser elaborado y aprobado para la cuenca hidrográfica en su conjunto, lo que impide una regulación independiente del mismo por cada una de las Comunidades Autónomas implicadas, cuyas competencias en materia de pesca fluvial y de protección de su ecosistema no pueden tener un alcance extraterritorial, ni interferir en la competencia del Estado sobre aprovechamientos hidráulicos, con la que necesariamente concurren. Esta exigencia no supone, en modo alguno, privar a las Comunidades Autónomas de sus competencias en orden a la protección de la pesca fluvial y su entorno medioambiental. Antes bien, el Organismo de cuenca determinará el régimen de los caudales ecológicos mediante la «mutua colaboración» (art. 23 de la Ley de Aguas –atal hau aldatu egin da 46/1999 Legearen bidez–) con las Comunidades Autónomas cuyo territorio forme parte total o parcialmente de una cuenca hidrográfica. Por idéntica razón, podrá el legislador autonómico establecer fórmulas que permitan esa colaboración y, por lo tanto, el establecimiento conjunto y sin interferencias del régimen de caudales ecológicos de la cuenca, pues lo único que resulta contrario al reparto constitucional de competencias es, en este punto, la determinación unilateral del citado régimen de caudales, con desconocimiento de las facultades atribuidas al Organismo de cuenca y de las competencias que corresponden a las otras Comunidades Autónomas sobre cuyos territorios también se sitúa la cuenca hidrográfica”.*
5. Asturiasko Aldizkari Ofiziala, 291. zkia., 1998-12-18.
6. Aragoiko Aldizkari Ofiziala, 26. zkia., 1999-3-4.
7. BOE, 84. zkia., 1998-4-8.
8. *“El objeto de la presente Ley es establecer el sistema de intervención administrativa de las actividades susceptibles de afectar al medio ambiente, la seguridad y la salud de las personas, en el ámbito territorial de Cataluña”.*
9. Kataluniako Ingurugiroaren Administrazioaren Parte-hartze Integralaren 3/1998 Legearen 3.2 atala: *“El sistema de intervención administrativa que regula la presente Ley se entiende sin perjuicio de las intervenciones que correspondan a la Administración General del Estado en las materias de su competencia”.*
10. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 59. zkia., 1998-3-27.





Urumea Ibaia.

beste kontzeptu edo terminoekin nahastu izan da, emari minimoarekin kasu. Emari minimo eta emari ekologikoaren arteko desberdintasuna oso garbi adierazten du LOPERENA ROTAk<sup>11</sup>. Honen esanetan, emari ekologikoa hauxe litzateke: *ibaia eta bere inguruaren ezaugarri fisiko-kimikoak, ubide, ibaiertz eta erriberako landareria eta fauna, akuifero eta urmaelak berriz betetzeko beharrezkoa den emaria*. Egile honentzat, emari minimoa, berriz, *emari ekologikoa gehi legeak edo administrazio hidraulikoek ustiapen jakin batzuk bermatzeko egin nahi duten uraren erreserba* litzateke.

1986ko Jabetza Publiko Hidraulikoaren Araudiak egindako aipamen gutxien ondoren, 1992-9-24ko Aginduaren bidez, *se aprueban las instrucciones y recomendaciones técnicas complementarias para la elaboración de los Planes Hidrológicos de las cuencas intercomunitaria*. Bertan Uraren Legeak 40 d) atalan jasotzen duena baieztatzen da, esatean

Plangintza Hidrologikoek ingurugiroan oinarritutako arrazoi bidez zehaztu behar dutela emari minimoa.

Ikuspegi material batetik, ubide bakoitzean dauden ziklo biologikoetan oinarritzen dira ibai baten ibilguan emari ekologikoaren erreserbak, eta horrela, ingurune urtarra eta bertako biztanleen artean elkarrekiko harremanen sistema garatzen da, gu geu ere sistema orokor horren barruan gaudelarik. Aipatutako horren guztiaren zailtasun objektiboa honako hau da: ibaiaren ibilguaren zati bakoitzean emariak zenbatekoa izan behar duen zehaztea eta koantifikatzea, emari ekologikoa eraginkorra izan dadin. Honi buruz dihardu Iparraldeko Plangintza Hidrologikoak (III)<sup>12</sup>.

Bestalde, eta aginpideak zirela-eta 1998-5-21eko AKEn konstituziokontraktotzat jo bazuten ere, abenduaren 18ko Gaztela-Mantxako 6/1992ko Legeak, Ekosistema Urtarren Babesa

11. LOPERENA ROTA, D. *Los Principios del Derecho Ambiental*, Civitas, 1998; 130 or.

12. Zera dio 2.1.2.12 arauan: "Caudal mínimo medio ambiental es el caudal que respetado en el cauce permite mantener en el río y su entorno unas condiciones próximas a las existentes antes de la intervención. Su finalidad es conservar:

- Las características físico-químicas del río.
- Las poblaciones vegetales y animales del cauce, márgenes y riberas.
- La recarga de acuíferos.
- Las zonas húmedas dependientes del caudal circulante.
- La calidad de las aguas, y los usos del agua pre-existentes.
- Las funciones recreativas y esparcimiento que se desarrollaban en la base del río".

eta Arrantzaren Erregulazioari buruzkoa, honelaxe dio bere 5. atalean<sup>13</sup>.

Beraz, garbi ikus daiteke kasu batean eta bestean burututako kontzeptualizazioak ez direla inondik ere antzekoak. Honela bada, Iparraldeko Plangintza Hidrologikoa ibaiaren aurreko egoeran oinarritzen da, eta edozein interbertzioren aurretik zeuden egoera edo baldintza bertsuak lortu nahi ditu, eta Gaztela-Mantxako Legeak, berriz, helburuan oinarritutako kontzeptualizazioa burutzen du, eta sistema urtar bakoitzak duen gaitasun biogeniko potentzialean oinarritzen ditu bere xedeak.

Uztailaren 24ko RD 1664/1998ak argi pixka bat egiten du. Honen bidez Arroaren Plangintza Hidrologikoa onartzen dira, eta bertan dioenez, ezinbestean homogeneizatu behar dira ingurugiroa babesteko asmoz zehaztutako emari ekologikoak eta lortu nahi diren helburu eta tratamenduak. RD honen 2 c) atalak puntu honi dagokion ohar garrantzitsua jasotzen du: *“los caudales ecológicos o demandas ambientales establecidos en los planes no tendrán el carácter de usos a los efectos de los arts.57 y ss. de la Ley de Aguas<sup>14</sup>, debiendo considerarse como una restricción que se impone con carácter general a los sistemas de explotación de los Planes Hidrológicos”*. Aurreikuspen hau gaur egun indartu egin da, Uraren Legearen 57.7 atalan sartu baita, abuztuaren 2ko Uraren 29/1985 Legearen aldaketaren, 46/1999 Legearen hogeigarren atalaren bidez<sup>15</sup>. Gainera, aipatutako arau honek berrikuntza garrantzitsu batzuk dakartza, RD 1664/1998-k aurreikusten duena zehaztuz<sup>16</sup>.

Emari ekologikoak murrizketa orokor gisa, eta ez erabilpen gisa, hartzeari buruz, MARTÍN RETORTILLOk honen ondorio ekonomikoak kontuan hartu behar direla azpimarratzen du. Alabaina, autore honek ez du ez aipatutako kalifikazioa ez eta emari hauek mantendu behar izana ere eztabaidatzen. Ustiapen jakin baten emakidadunetan egindako emariaren murrizketa azpimarratu nahi du, honek *“lanak amortizatzeo egindako aurreikuspen ekonomikoak moldatzea ekartzen baitu”*<sup>17</sup>.

**“ Gaur egun, erreserbaren helburu nagusia ez dago arrantzaren ustiapenari lotuta, ibaiko ekosistema osoaren iraupenari baizik**

”

## 4. Emari ekologikoaren arazo praktiko batzuk

### 4.1. Determinazioari buruz

Ez du ematen emari ekologikoa izan behar duen isurtzen den ur kantitatea zehazteko eskumen osoko esparruan gaudenik, legeriak emari ekologikoarekin lortu nahi diren babeserako eta berreskuperako helburuak nahiko zehatz mugatu baititu. Horrela izanik, eta baliabide zientifiko egokiak erabiliz, emari jakin baten ingurugiroaren babesa bermatzeko beharrezkoa den ur kantitatearen hurbileko kalkulua egin ahal izango da. Edonola ere, Uraren Liburu Zuria lerro honi lotzen zaio bere postulatu guztietan<sup>18</sup>.

### 4.2. Uraren Legearen 63.3 atalaren kalte-ordainen aurreikuspenari buruz

Atal honek Plangintza Hidrologikoetako erabakiek emakidadunei eragindako kalteen ordainketaren aurreikuspena jasotzen du,

13. 1. El régimen de caudales ecológicos garantizará la capacidad biogénica potencial de un ecosistema acuático y se determinará en función de su biocenosis potencial y de la fijación de un biotopo disponible suficiente para ella.
2. En todos aquellos usos del agua que supongan una modificación de los caudales circulantes e un curso fluvial o en un tramo del mismo será preceptiva la previa determinación por la Junta de un régimen de caudales ecológicos. En ningún caso el caudal circulante mínimo instantáneo será inferior al 20 por 100 del caudal medio interanual medido en el punto en cuestión.
3. En los ríos o tramos de ríos no regulados la Junta determinará un caudal ecológico, por debajo del cual no se podrán producir detracciones de agua, salvo que las mismas atiendan al abastecimiento de poblaciones.
14. Atal hauek aldatu egin dira 46/1999 Legearen bidez.
15. BOE, 298. zkia., 1999-12-14.
16. *“En todo caso, se aplicará también a los caudales medioambientales la regla sobre supremacía del uso para abastecimiento de poblaciones recogida en el párrafo final del apartado 3 del artículo 58. Los caudales ecológicos se fijarán en los Planes Hidrológicos de cuenca. Para su establecimiento, los Organismos de cuenca realizarán estudios específicos para cada tramo de río”*.
17. MARTÍN RETORTILLO, S. Acotaciones sobre el nuevo derecho de aguas, In: REDA, 101 zkia., 1999ko urtarrila-martxoa.
18. Ingurugiro Saila. Espainiako Uraren Liburu Txuria, 1998.



Nahitaezko Desjabetzearen Legeari argi lotzen zaiolarik.

Emari ekologikoaren erreserbaren eraginez gertatutako balizko murrizketen kasuan, ez du ematen nahitaezko desjabetzearen arauak aplikatzeko baldintzak betetzen direnik, emakidak ez baitira ezinbestean aldatuko. Lojiko dirudi, eta halaxe dio Uraren Legearen 57.2 atalak, emakidak baliabideen arrazoizko ustiaketa araberan banatzea, "emakidadunen tituluak ez du bermatzen emandako emarien erabilera".

Beste kontu bat da Plangintza Hidrologiko jakin bat onartzean emakidaren berrikuspena egin behar denean, eta kasu honetan administrazioak bere emakidaren murrizketa jasan duen kaltetuari ordaindu egin beharko dio, betiere Nahitaezko Desjabetzearen Legearen arabera.

## 5. Ondorioak

- Emari ekologikoaren erreserbaren aurrekari historikoa, ibaiko arrantzaren legerian dago. Alabaina, gaur egun erreserbaren helburu nagusia ez dago arrantzaren ustiapenari lotuta, ibaiko ekosistema osoaren iraupenari baizik.

- Emariaren erreserba, ibaiko ekosistemaren izaera bermatuko duen ur korrante minimoan oinarritzen da. Horrela, emari ekologikoa, Plangintza Hidrologikoak ibai bakoitzaren ingurune propioaren babesa bermatzeko zehaztutako erreserba da.

- Autonomia erkidegoek ez dute aginpiderik emari ekologikoen erreserbak plangintza hidrologikoak kontuan hartu gabe finkatzeko. Salbuespen bakar gisa, eta parte hartzen duten administrazioen elkarrekintza eta batasunaren printzipioa alde batera utzirik, autonomia erkidegoek, Baliabide Naturalaren Babestutako Esparruaren Plangintzaren bidez (5.2. atala, 4/1989 Legea), Plangintza Hidrologikoari muga batzuk jartzea daukate, betiere plangintza hidrologikoa indargabetu gabe edo lege-iruzurra egin gabe.

- Ustiapen hidraulikoek muga zehatz bat dute emari ekologikoaren arabera; azken finean emari ekologikoaren soberakina bakarrik ustia daiteke, legeak ibai bakoitzaren ingurugiroaren babesa bermatzen baitu.

- Gaur egun emari ekologikoa banako onuradun zehatzik ez duen murriztapen orokor gisa hartzean, garbi ikus daiteke emakidadunek, oro har, beren eskubideetan galerak izango dituztela administrazioak ezarri behar dituen aurreikuspenetarako emari hauek zehaztean.

- Plangintza hidrologikoa ezartzeko emakidak berrikusi behar direnean salbu, ez da nahitaezko desjabetzearen kasua izango, eta ondorioz, ezingo dira kalte-ordainak eskatu.

## 6. Ohar bibliografikoa

EMRID IRUJO, A. Usos del agua e impacto ambiental: Evaluación de impacto ambiental y caudal ecológico, In: *La calidad de las aguas*, Madril, 1994.

EMRID IRUJO, A. El mercado del agua. Consideraciones jurídicas en torno al proyecto de reforma de la Ley de Aguas, In: *Revista Mensual de Gestión Ambiental*, 7. zkia, La Ley-Actualidad, 1999ko uztaila.

FANLO LORAS, A. La articulación de las competencias de las Comunidades Autónomas en la gestión del agua, In: *Gestión del Agua y Medio Ambiente*, Madril, 1997.

LOPERENA ROTA, D. *El derecho al medio ambiente adecuado*, Civitas, 1996.

LOPERENA ROTA, D. *Los principios del Derecho Ambiental*, Civitas, 1998.

LOPERENA ROTA, D. & ECEIZABARRENA SAENZ, J. Reciente jurisprudencia constitucional sobre medio ambiente, In: *Repertorio del Tribunal Constitucional*, 2. zkia, Aranzadi, 1998.

MARTÍN-RETORTILLO, S. *Derecho de aguas*, Madril, 1997.

MARTÍN-RETORTILLO, S. Acotaciones sobre el nuevo derecho de aguas, In: *REDA*, 101 zkia., 1999ko urtarrila-martxoa.

MINISTERIO DEL MEDIO AMBIENTE. *Libro Blanco del agua en España*, Ministerio del Medio Ambiente, 1998ko abendua.

SÁNCHEZ MORÓN, M. Ordenación del territorio, urbanismo y medio ambiente en el Anteproyecto del Plan Hidrológico Nacional, In: *RAP*, 1993.